

Solidaritatea kozinatzen

Ehun pertsona pasatxorentzako afariak prestatu eta banatu ditu Lasarte-Oriako Elkartasun Sareak / 2-3

Egoera "okertu" dela salatu dute

Herritarren erdiak baino gehiago (%56) medikurik ez dutela deitoratu du LOOPA plataformak, manifestazioa eginda / 4

Otsailaren 5etik 12ra eman ahalko dute izena herritarrek Emakumeen zentroko ikastaroetan / 6

TrukeLandia egitasmoaren aurkezpena egin dute Ttakun KEk eta udalak / 8

Moriarti ekoiztetzeko kideek 'Marco' filmaren nondik norakoak azaldu dituzte / 9

Lasarte-Oriako atletak, bi domina eta hainbat final Euskadiko txapelketan / 10

Sinadurak biltzen hasiko dira pentsiodunen Herri Ekimen Legegilea babesteko / 5

Lasarte-Oriak KirolTxartela Mugiment ekimenarekin bat egin du / 13



2025-2026 ikasturterako

AURREMATRIKULAZIO DATAK

OTSAILAREN 3TIK 14RA

- Haur Hezkuntza (2 - 5 urte / **2023an jaiok**)
- Lehen Hezkuntza
- DBH

ZATOZ GU EZAGUTZERA! BANAKAKO BISITAK

Eskatu hitzordua:

lasalleberrozpe.eus

943590557

Hezkuntza Etapa bakoitzeko
Berrikuntza eta Arreta Pertsonalizatua



Iñigo Gonzalez Sarobe DONOSTIA
Hilaren 28ko afari solidarioen banaketa ongi joan zen eta gaueko bederatiak pasatxo itzuli ziren Lasarte-Oriara boluntarioak, nekatuta baina poz-pez, esku hutsik eta bihotzak beteta. Kotxeetako batera igo zirenek hitz eta pitz egin zituzten hiritik herrira dauden zortzi kilometroak. Dikrak kontatu zuen hamabost urte daramatzala gurean bizitzen, eta "denetik" topatu duela tarte horretan. Badaudela beraiekin hitz egitea ere merezi ez dutenak, baina borondate ona dutenak eta laguntzeko prest daudenak ere bai. Horrelakoak dira (bertatik bertara egiazatu ahal izan du TXINTXARRI-k), adibidez, elkartasun sarea sortu berri duten boluntarioak: hila-bete baten buruan eragilea eratu, janari bilketa solidarioa egin eta Donostian ehun afari pasatxo prestatu eta banatzeko gai izan dira, hiri horretan bizi eta, beraiek bezala, borondate ona duten eta laguntzeko prest dauden Kaleko Afari Solidarioak (KAS) egitasmo lagunekin lankidetzan. Lau urte baino gehiago daramatzate kale egoeran dituzten pertsonak elikatzen, musutruk, egunean behin bederen bero jateko aukera izan dezaten. Arituak eta adituak dira honezkerok, eta primeran gidatu zuten lan hori lehen aldiz (eta baten batek, bigarrenez) aurrera eramanean zuen kuadrilla. Zoriondu egin zituzten eta nabarmendu zituzten, batez ere, lasarteoritarren antolaketa eta logistika. *Lasarte, kaso aparte* (kasu honetan, onerako).

Txikiak eta betetzeko errazak diruditen poltsetan sartu zutena prestatzeak eskatzen du arratsalde oso bateko lana. Elkartasun sareko aurreneko kideak 16:00ak jo aurretik bertaratu ziren Xirimiri elkartera, *mise en place* delakoa (otorduak egiteko beharrezko guztia prestatzea, alegia) atontzen hasteko: poltsak eta tuperrak mahaietan jarri, ogia moztu, plater nagusirako dilistak eta arroza egosten jarri, azkenburukorako fruta ekarri, janaria garraiatzeko kaxak garbitu... Tantaka-tantaka iritsi ziren kide gehiago eta 17:00ak aldera joandakoak zur eta lur geratu ziren, aurreneko txandakoek oso aurreratuta zutelako hori guztia.

Behar gorrian dauden pertsonak laguntzeaz gain -Donostia-koekin hasi dira baina asmoa



Egindako lanak eragindako poztasuna agerikoa zen boluntarioen aurpegi eta keinuetan. TXINTXARRI

Elkartasun zaparrada, Xirimiri elkartetik Donostia erdigunera

Lasarte-Oriako Elkartasun Sareko kideek ehun otordu pasatxo prestatu eta banatu dituzte Donostiako Gipuzkoa plazan, Kaleko Afari Solidarioak egitasmo lagunekin lankidetzan: lau urte baino gehiago daramatzate kale egoeran dauden zientoka pertsona elikatzen

dute gure herrian bizi direnen beharren diagnostikoa egin eta ekintza plan bat sortzeko-, elkartasun sarearen helburuetako bat bada eragilearen izenak adierazten duen hori bera, hau da, herritarrak saretzea: haurrak, gazteak eta helduak. Hori horrela izanik, gogotsu lan egiteaz gain aukera izan zuten gai ugari buruz hitz egin eta gauza berriak ikasteko, adibidez, sukaldetan, dilistak eta arrozak prestatu bitartean: Anek gobernatu zituen bi pertzak eta arratsaldean zehar inguruan izan zituztenek adi jarraitu zituzten

HILABETE BAKOITZEKO AZKEN ASTEARTEETAN PRESTATUKO DITUZTE AFARI SOLIDARIOAK

sukaldariak emandako jarraibideak. Eta lanak aurreratuta izateak bide eman zien, tartetxo batez, elkartasun sareko kideetako bi kideren urtebetetzea ospatzeko: bi protagonistak eta beste taldekide batzuk borobilean bilduta zirela, ezustean eman zieten croissant bat hiru kandelarekin, *Zorionak zuri* kantatu bitartean. Irribarretsu itzali zituzten.

Xirimiritik, Donostiara
Arratsaldeko zazpietarako prest zeuden dilistak eta arroza. Lehenxeago utzi zuten gaueko banaketa erabat antolatuta: nola errazionatu tuperretako janaria, poltsak nola sartu kaxetan eta nola kargatu autoetan, nortzuk joan Donostiara lehenago (besteak beste, afaldu nahi zuten pertsonen banatzeko tiketak hartzea) eta nortzuk geroago... Ez zitzaie

asko kosta izan hori dena adostea eta bosteko aurreneko taldetxoak 19:15ean jarri zen martxan, Xirimirin zeuden gainerakoek otorduak jo eta su prestatu bitartean.

Aurreneko taldetxo horrekin batera joan zen TXINTXARRI: Dikra, bere seme-alaba Malak eta Moha, eta Maider. Gros auzoko Marruma tabernara joan ziren, KASekoekin hitzordua jarritako tokira. Atarira iristean zain zuten Garazi, elkartasun sareko beste kideetako bat, eta elkar agurtu ostean barrura sartu ziren, tabernara. Bertan zegoen Agus, jabea; adeitsu eta goxo,

LASARTE-ORIAKO BEHARREN DIAGNOSTIKOA EGIN ETA ESKU HARTU NAHI DUTE SAREKO KIDEEK

esan zien barrurago sartzeko, bertan zeudela KASeko kide Gema eta Iraitz, eta baita egunero-egunero lagun dituzten banatzaileak ere. Elkar agurtu eta eskerrak eman zizkieten elkarri; betaranoek hasiberriei, atzoko egunean laguntzera animatu izanagatik, eta hasiberriek betaranoei, gisa honetako egitasmo bat aurrera eramateagatik. Banatzaileentzako lau otorduak Marruman utzi, banatzeko tiketak hartu eta Gipuzkoa plazarantz abiatu ziren. "Egunean-egunean aritzen gara hemen, lau urte baino gehiago daramatzagu honetan eta banaketa guztiak izan dira desberdinak; ea nola doan gaurkoa", adierazi zuten Gemak eta Iraitzek.

Elkartasun sarekoek bidean jaso zituzten banaketarako kontuan izateko jarraibideak: tiketak banan-banan eman, eskatzaileak ordenean pasa zitezten nola jarri, zenbakiak nork esan eta txartelak nork jaso... Azken horretaz arduratu ziren Dikra, Malak eta Moha. Enparantza horretara iritsi zirenerako zain zituzten dozenaka pertsona eta berehala jarri ziren martxan: Malakek tiketak banatu zituen eta Dikrak eta Mohak zenbakiak esan zituzten euskaraz, gaztelaniaz eta dajiraz (Dikrak azaldu zuenez, batez ere Maroko iparraldean erabiltzen duten dialekto bat da). Orduantxe iritsi zen bigarren taldea Lasarte-Oriatik, janariz betetako kaxa ugariarekin. Erdian jarri eta ekarritako guztia banatu zuten, agortu arte, 15-20 minututan. Elikagaiez aparte arroparik ba ote zuten galdetu zuten joandako batek, eta erantzun zioten baietz, jantziak-eta ematen dituztela baita ere, baina Herreran.

Banaketaren 'partea'

"Ongi joan da gaurkoa", esan zuten Iraitzek eta Gemak, lanak bukatu berritan. "Maider, bidal ezazu gaurko banaketaren *partea* KASeko kideen WhatsApp taldera, gaurkoa nolako izan den jakin dezaten". Egindako lanagatik nekatuta baina pozik zeuden gure herritik joandako boluntarioak, eta lankidetzarekin aurrera jarraitzeko gogoz. "Gaurkoan asko elkartu gara Xirimirin, ea aurrerantzean dinamikari eusten diogun". Parte hartu nahi duenak aukera polit bat izango du hilabete barru, otsailaren 25ean hain zuzen ere. Printzipioz, elkartasun sarekoek asmoa dute



Argazki honetan, poltsak prestatzen. Eskuinekoetan: sukaldeko taldea, janari pertzak eta tuperrak betetzen. TXINTXARRI

hilabete bakoitzeko azken asteartean elkartzeko eta afari solidarioak prestatu eta banatzeko.

Gisa horretako egoerekiko kontzientzia eta laguntzeko grina pizteko ez dago bertatik bertara aritzea bezalakorik. Banaketaren ostean eta bakoitza berera itzuli baino lehen, Gemak baliatu zuen une hori kale egoeran dagoen pertsonetako bat taldeari aurkezteko: adingabeen zentro batean bizi izan zen 18 urte bete arte, eta, urtebetetze horren egunean bertan kaleratu zuten, baliabide gehiagorik eman gabe. "Izugarria da horrelako egoerak bizi behar izatea".

Ondoren, Marrumara joan ziren bueltan, tiketak zenbatu eta egingadako errepasatzera, eta, banatzaileak, goxo afaltzera. Tarte horretan, gogoeta hau egin zuen Dikrak: "Nahi dut nire seme-alabek ikustea zer-nolakoa den errealtatea, ikas dezatela daukatena baloratzen". Malakek ikusi eta bizitakoaz hitz egin zuen, etorki-

zunean primerako gizarte langile bat izango denaren pasioarekin (Gizarte Hezkuntzako gradua ikasten ari da eta laster praktikak egiteko garaia izango du), eta, Moha txikia, normala den bezala, janari artean ibili ostean afaltzeko irrikaz zegoen.

Gaueko hamarrak jotzear zirela egin zuen afari legea gaztetxoak, arrebarekin, amarekin eta Xirimirin afaltzera geratu ziren elkartasun sareko beste zenbait kiderekin. Arroza jan zuten, barazkiekin.

Eguneroko jarduna

Elkartasun sarekoak, esan bezala, otsailaren 25ean elkartuko dira Xirimirin berriz ere, egun horretako afaria prestatzeko. Lauak aldera bertaratzen denak han topatuko ditu kideak eta baita egitekoa ere. Tamalez, egun horretakoa bezainbesteko beharra izan zuten biharamunean, eta hurrengo egunean, eta... Beraz, horretan jarraituko dute KASeko

kideek, Gipuzkoa plazan ez ezik, Amaran eta Parte Zaharreen ere makina bat otordu banatuta, musutruk eta boluntario ari diren pertsonen laguntzari esker.

Zentzu horretan, egitasmoa lagundu nahi dutenek badituzte bide ugari horretarako: otorduak kozinatu, gainerako lanak aurrera eramaten lagundu, ekonomikoki babestu edota egitasmoaren berri eman eta horren aurkako jarrerak salatu. Azken horri lotuta, Donostiako Udalak urri amaieran erabaki zuen Egiako taldeari auzo horretan afariak ematea debekatzea, egun batzuk lehenago KASeko eta kale egoeran daudenen aurka (mezu xenofobo eta arrazistak zabaldu-ta, besteak beste) dozenaka donostiarrek (PPko zinegotziak barne) egindako "baimenik gabeko" manifestazio baten ondorioz, *Irutxoloko Hitza*-k berri eman zuenez. Egitasmo solidario horren sustatzaileek, ordea, aurrera jarraitzea erabaki zuten



eta Egian banatzen zutena Gipuzkoa plazan ematen dute orain.

Bitxia izaten da: horrelakoetan, estimu beroena merezi dutenak izan ohi dira laguntzera joan zaizkienei etenik gabe eskerrak ematen dizkietenak. Hala egin zuten atzo Gemak eta Iratiztek: "Hilabetean behin zuena bezalako boluntario talde bat honetaz arduratzea sekulakoa da guretzat; eskerririk asko".

Elkarri eskerrak eman eta lan-kidetzan jarraitzekotan geratu ziren batzuk eta besteak. Bestela esanda, gero eta individualistagoa den gizarte batean, komunitatearen beharra aldarririkatu eta garrantzia ikusarazten; kaleetan eta sare sozial digitaletan bolo-bolo dabilzan arrazakeriari eta xenofobiari, hezur eta haragizko sareekin erantzuten; elkartasuna kozinatzen.



Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

**Zure iragarkia
jarrinahi duzu?
Jar zaitez
gurekin
harremanetan!**

Deskontu bereziak herrikoentzat!

ESKATU TARIFAK:
publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66



MAiTE

ESTETIKA ARETOA

**Negua da fotodepilazioa
egiteko unerik egokiena**

Zatoz gure estetika aretora!

Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943-37 08 45

Manikura eta pedikura - Aurpegiko tratamenduak - Mota ezberinetako depilazioak - Solariuma



Manifestariaren afixetako batean 'Gure medikuak... Non daude?' leloa irakur zitekeen. TXINTXARRI

Kaleetatik salatu dute osasun publikoaren egoera, beste behin

Dozenaka herritarrek parte hartu dute LOOPA plataformak deitutako manifestazioan, osasun zentrotik Loidibarrenerraino. Salatu dute herritarren erdiak baino gehiagok, %56, ez duela medikurik eta "asko eta asko", sufritzen ari direla, bai fisikoki bai animikoki

Maitane Aldanondo

Jendetza bildu zen anbulatorio aurrealdean eta kalearen beste aldean protesta ekintza hasi aurreko minutuetan. Hitz batzuk esan zizkieten antolatzaileek ekin aurretik eta bi pankarten inguruan antolatzen joan ziren. Buruan zihoana zeramatenek gidatu zuten bidea, Elizatzetik Kale Nagusira, handik, Hipodromo etorbidera eta Okendo zeharkatuta, Arkupe tabernaren parera heldu, eta abiapuntura bultzan, Loidibarren frontoiraino luzatu zuten bidea. Harmailtan zutik gelditu ziren pankartak zeramatzenak eta gainerakoak pilotalekua betetzen joan ziren.

Arantxa Otaegik, euskaraz, eta Begoña Castrok, gaztelaniaz, irakurri zuten idatzia. Osasun Zentroaren aurrean irakurtzeko prestatuta zuten, baina protesta

ekintzan parte hartu zutenak ez bustitzeko, pilotalekuan hartu zuten aterpe. "Lasarteoriatarren osasun zentroa hemen dago, eta horregatik gaude gaur hemen. Hemen gaude, ez gaixorik gaudelako; hemen gaude haserre gaudelako. Haserre gaude gutako askok, gero eta gehiagok gainera, medikurik ez dugulako", eta horren aurrean pankartetan jasotako galdera egin zuten: "Non daude gure medikuak?".

Haserre daude Osakidetza arduradunek ez dutelako beraien hitza bete. 2024ko abendu amaierarako, hutsik zeuden lau me-

EGOERA "OKERTU" EGIN DELA SALATU DUTE: 12,5 KUPOTATIK ZAZPI DAUDE BETE GABE, BAT GEHIAGO

diku plazak beteko zituztela esan arren, bete gabe daude "eta okerrago, modu informalean jakin izan dugunez, lanean ari zen medikuetako bat jubilatuta da". Hortaz, apirilaren 12ko manifestazio jendetsutik hona, "egoera bideratu beharrean, okertu egin da". Zehaztu zuten, herriri dagozkion 12,5 kupo medikuetatik sei bete gabe zeuden, hau da, lasarteoriatarren %48k ez zuen medikurik. Egun, aldiz, zazpi dira, eta %56ri eragiten dio. Hori lanean ari diren medikuen oporraldiak eta gaixoaldiak kontuan hartu gabe.

Datu "gordinak" izateaz gain, "krudelak" ere badirela azaldu zuten, herritar "asko eta asko" sufritzen ari baitira animikoki eta fisikoki. "Lasarteoriatar batzuk modu gizagabea ari dira sufritzen, gizagabea, eta ez da hiperbole bat". Abenduan testi-



Lasarteoriatar ugari, osasun zentro parean manifestazioa hasteko zain. TXINTXARRI



Euriagatik, Loidibarren pilotalekuan amaitu zuten ekintza. Lepo bete zen. TXINTXARRI

gantzak partekatzea gonbidatu zituzten herritarrek eta jasotako batzuk irakurri zituzten.

Medikuak non dauden ez dakite, bai, ordea, Osakidetza kudeatzeko ardura izan dutenak, "egoera honetara ekarri gaituzten pertsonak", osasungintza pribatura salto egin dutela. Besteak beste, Gotzone Sagardui sailburua Vithas San Jose klinika pribatura pasatu da, aurreko sailburu Jon Darpon edo Quiron taldera joan ziren moduan. "Asko laguntzen du horrek hemen gertatu dena eta gertatzen ari dena ulertzen".

"Gaixotasuna da errenta"

Ezer ilegalik egin ez badute ere, kudeaketa txarraz gain, osasungintza publikoan ez sinestea eta sistema pribatuaren alde lan egitea egotzi zieten. Azken horren alde egin dute, batetik, modu aktiboan, "kontzertazioen bidez diru publikoa pribatura bideratzen", eta bestetik, pasiboan, osasungintza publikoa "kaxkartzen

OSASUNGINTZA PRIBATUAREN ALDE LAN EGITEA EGOTZI DIETE OSAKIDETZAKO ARDURADUNEI

utiz", horrela, jendeak pribatura joan behar izateko. Izan ere "bere lana ondo egingo balu", pribatua "marginala" litzateke eta "askoz etekin txikiagoak" izango litzuzke. "Lehen Arretak egin behar duen lan prebentiboa gero eta eskasago izanda, gaixo gehiago egongo dira, botika gehiago salduko dituzte enpresa farmazeutikoek, kontsulta eta estantzia gehiago izango dituzte klinika pribatuek. Ea argi daukagun: lobby sanitarioarentzat osasuna ez da errenta, gaixotasuna da errenta".

Hori guztia salatu zuten, osasungintza publikoa "indartu eta defendatu" behar dela uste dutelako. Ez dute promesa gehiago nahi, konponbide errealek baizik; horrexegatik, zenbait eskaera egin zituzten: pribatizazioari aurre egiteko, euro bakar bat ere ez klinika edo enpresa pribatuei; Lehen Arreta indartzea, bai giza baliabideekin bai baliabide ekonomikoekin; osasun langileen lan baldintzak hobetzea eta prekarietateari aurre egitea; kudeaketa gardena eta parte hartzailea; eta euskaraz artatua izateko eskubidea bermatzea.

Amaitzeko, Osasun Publikoaren Herri Plataformak bihar, otsailak 1, Donostian aurrera eramango duen manifestaziorik bat egitera deitu zituzten joandakoak. Bulebarretik abiatuko da 17:00etan.

Erronka, hitzetatik ekintzetara igarotzea

Pentsio publikoei buruzko bigarren solasaldian desafioa bota diete Borobilean Elkarteko kideek saiora bertaratu direnei: "Gai izango ote gara gai hori lantzeko talde bat sortzeko?". Gonbidatuak, Sole Agirre Garrok, horretara animatu ditu

Txintxarri

Aurreko urtea bukatu bezala hasi dute aurtengoa Borobilean Elkarteko kideek: pentsio publikoei buruz hitz egiten. Jaiotzez oriatarra den eta Irunen bizi den Sole Agirre Garro gonbidatu dute Oriarte Landaberri institutura eta bertaratu direnak gai hau kalez kale zabalduko duen talde bat eratzea animatu ditu bertaratuak: "Irunen gai izan bagara, hemen, zergatik ez?".

Borobileaneko lagunek "bi ondorio nagusi" atera zituzten abenduak mahai ingurutik: bat, gaur egun kobratzen dituzten pentsioek pertsona askori (emakumeak dira gehienak, hama-



Sinadura bilketa egiteko materiala jaso dute Borobilean Elkartekoek. TXINTXARRI

rretik zazpi) ez diela bermatzen bizitza duin bat, ez direlako iristen LGS Lanbide arteko Gutxieneko Soldatara (iaz, 1.134 eurokoa izan zen); eta bi, "funtsezkoa" dela mobilizatzeko: "Borrorarik gabe ez dago garaipenik".

Testuinguru horretan kokatu dute Euskal Herriko Pentsionisten Mugimenduaren (EHP) jarduna. Duela zazpi urte ekin zioten ekimenak aurrera eramateari, batez ere, hau aldarrikatzeko: gutxieneko pentsio bat ezartzea, 1.080 euro kobratu ditzan pentsiodun bakoitzak. Orain, urrats bat gehiago egin eta Herri Ekimen Legegile bat eraman dute Eusko Legebiltzarrerara, ordainsari horiek LGSarekin berdintzeko. Eskaera horrek ahalik eta babes sozial zabalena izan dezan hiru hilabete sinadura bilketa abiatu dute.

Atxikimendu kanpaina hori bere egin dute Borobileanekoei eta honako erronka bota diete mahai ingurura bertaratu direnei: "Izango ote dugu gaitasuna gure herrian horrelako mugimendu bat gorpuzteko?" [EHP sortu eta gutxira eratu zuten talde bat Lasarte-Orian eta 2021eko azarora arte aritu

zen lanean]. Duela egun batzuk EHPko koordinatzailearekin bildu zen Borobilean Elkartea eta bilkura horretara joan zirenak "oso gustura eta pozik" atera ziren handik, ikusi zutelako "oso bizirik dagoela ekimena". Norabide horretan, iragarri berri dute herritar talde bat animatu dela atxikimenduak jasotzera eta otsailaren 3an hasiko dela hori egiten, Okendo plazan, 18:30ean. "Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egon, 18 urte edo gehiago izan eta firmatzeko uanean nortasun agiria erakutsi behar dute".

Gonbidatuak hartu du hitza ondoren. "Kozinatzeko errezeta batekin" parekatu du pentsiodunen talde bat eratzea: "Sua pizteko poxpoloa bezain inportantea da labean sartuko duguna, guztiak dira garrantzitsuak eta batzuek ez dute besteek baino gehiago balio". Iruditzen zaio herritarren "kontzientziazio falta" dela "arazo larriena", pentsiodunek "asko" dutelako jokoan: "Gure ordainsariak bermatuta ditugu, baina ari gara borrokatzen baita ere ondorengogatik".

ORIANTE BHI

Matrikulazio epea OTSAILAK 3tik 14ra

- 12-18 urte bitarteko ikasketak
- DBH - Batxilergoa
- Jangela zerbitzua
- Euskal kultura eta kulturartekotasuna bultzatuz
- Hezkidetza
- Agenda 2030
- Mugikorrik gabeko ikastetxea

ATE IREKIAK

OTSAILAK 5 18:00-19:00

Landaberri eraikinean!

943 899494

info@oriarte.eus

Landaberri eraikina (DBH1/2)

Pintore kalea 2

Larrekoetxe eraikina (DBH 3/4 eta Batxilergoa)

Buenos Aires aldapa 1

Lasarte-Oria

www.oriarte.eus





Otsailen hasi eta ekainean amaituko diren ikastaroen berri eman dute udal ordezkariak. TXINTXARRI

Emakumeen zentroko ikastaroak abiatzear

Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroan otsailetik ekainera bitarte aurrera eramango dituen ikastaroak iragarri ditu udalak. Otsailaren 5ean irekiko dute izen emate epea; inskripzioak aurrez aurre zein sarean egin ahal izango dute herritarrek

Txintxarri

Ikastaro eta jarduerak tresna praktiko eta hezigarriak eskaintzea dute helburu, baina baita gizartean dauden desberdintasun egituren aurrean kontzientzia indibiduala eta kolektiboa sustatzea ere, hala nola diskriminazioa, harreman sozialen falta eta emakumei bereziki eragiten dieten beste arazo batzuk. Hala azaldu dute horien berri eman dute bi ordezkari politikoez: Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Nuria Fernandezek eta Berdintasun teknikari eta Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroko koordinatzaile Maite Iglesiasek.

Fernandezek azpimarratu du gisa horretako ekimenak garrantzitsuak direla ezberdintasunen aurka borrokatzeko eta emakumeen ahalgintza sustatzeko: "Emakumearen Zentroa emakumeek ezagutza eskuratzeaz

gain, babestuta eta beste batzuekin konektatuta sentitzeko gune bat izatea nahi dugu, sareak sortuz, aldatuta sozial positibo bat eragin dezaten". Gaineratu du ikastaroak Lasarte-Oriako emakume guztiei zuzenduta daudela eta horietan parte hartzea gonbidatu ditu.

Izen emate epea

Iglesiasek, aldiz, ikastaroen eskaintza ezagutarazi eta horien gaineko xehetasunak eman ditu. Berrikuntza gisa aurkeztu du KZ Gunearekin lortutako akordioa, eta harekin elkarlanean aurrera eramango dituzten ekimenak ere iragarri ditu.

Izen emate epea noiz hasi eta noiz bukatuko den ere azaldu du; otsailaren 5etik 7ra, 09:30etik 13:00etara egin ahal izango dute interesdunek inskripzioa, eta 10etik 12ra, berriz, arratsaldean ere: 15:00etik 19:00etara. Sarean

izena eman nahi dutenek, ordea, udalaren web atariaren bidez egin beharko dute. Horren guztiaren harira, ohartarazi du ez dutela onartuko telefono bidezko izen ematerik.

Lekuak mugatuak dira, eta hori hala izanik, inskripzioek horien kopurua gaintzen badute, parte hartzeak zozka bidez esleituko dituzte arduradunek; zozketa otsailaren 14an egingo lukete, eguerdian.

Hori guztia esanda, ikastaroak otsailaren 24an hasi eta ekainaren 20an amaituko direla jakinarazi dute udal ordezkariak.

IZEN EMATEEK LEKUAK GAINDITZEN BADITUZTE, ZOZKA BIDEZ ESLEITUKO DA PARTE HARTZEA

Ikastaroak

AHALDUNTZE ESKOLA

• Antzerkia:

Astelehena, 17:30etik 19:30era.
Erroldatuak: 51,00 euro.

• Biodantza:

Asteazkena, 09:30etik 11:00etara.
Erroldatuak: 38,25 euro.

• Indarra eta konfiantza:

Osteguna, 17:00etatik 18:30era.

• Mugitu, adierazi eta ahalgintza:

Astearte, 10:00etatik 12:00etara.

• 'Mindfulness'-a ahalgintzako:

Astelehena, 17:00etatik 19:00etara.

• Gure bizitzetako buruz elkarrekin

ikasten:

Astearte, 16:00etatik 17:30era.

• Ono zahartzea: eutsi zure amatei!

Osteguna, 10:00etatik 12:00etara.

• Aldaketa, hobetzeko:

Astearte, 17:45etik 19:45era.

OHIKO IKASTAROAK

• Yoga: Astearte, 09:15etik 10:45era.

Erroldatuak: 38,25 euro.

• Batuka: Ostirala, 11:15etik 12:00etara,

edo 12:15etik 13:00etara.

• Eskulanak: Osteguna, 18:00etatik

20:00etara.

Erroldatuak: 51,00 euro.

• Hipopresiboak: Osteguna, 16:15etik

17:15era. Erroldatuak: 44,55 euro.

• Tai Xia: Ostirala, 18:00etatik

19:00etara. Erroldatuak: 21,98 euro.

• Kantua: Asteazkena, 11:45etik

13:15era.

• Bitxiak: Astearte, 16:00etatik

18:00etara.

• Jantzi konponketak:

Astelehena, 16:00etatik 18:30era.

JARDUERA BEREZIAK ETA IRAUPEN

LABURREKOAK

• 'Mindfulness'-a desgaitasuna duen

emakumeentzat:

Astearte eta osteguna, 17:00etatik

18:00etara, Mirentxun.

• Ikasketak homologatzeko

prozesuak: Martxoak 11 eta 18,

16:30etik 19:00etara.

KZ GUNeko IKASTAROAK

• Argazki erretokea telefono

mugikorrek: Martxoak 3 eta 4,

astelehena, 11:00etatik 13:00etara.

• BAKQ ziurtagiria: Martxoak 5,

asteazkena, 11:00etatik 13:00etara.

• Online tramiteak Osakidetzan

Martxoak 6 eta 7, ostegun eta ostirala,

11:00etatik 13:00etara.

• Erosketa eta ordainketa segurua

interneten

Eguna eta ordutegia: Martxoaren 10 eta

11, astelehen eta astearte, 11:00etatik

13:00etara.

• Smartphoneak eta tabletak, zure

Android gailua erabiltzen ikasi

Martxoaren 3, 4, 5, 6, 7, 10 eta 11,

09:00etatik 11:00etara

2026. urteko afixa prestatzeko garaia

Txintxarri

2026ko Martxoaren 8a iragarriko duen afixa aurkezteko epea zabaldu du udalak; proposamenak otsailaren 28ra arte egin ditzakete parte hartzaileek. Antolatzaileek jakinarazi dute guztien artean hiru hautatuko dituztela; horietatik garailea izango da datorren urterako kartel iragarlea

Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Nuria Fernandezek eta Berdintasun teknikari eta Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroko koordinatzaileak egitasmoaren garrantzia azpimarratu dute: "Gazteak berdintasunaren aldeko borrokan inplikatzeko eta bertako talentu artistikoa ikusarazteko tresna da. Aukera paregabea da gazteei Martxoaren 8a bezalako egun esanguratsuaren harira ahotza emateko".

12 eta 17 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute lehiaketan; hori bai, afixa guztiek honako goiburua eraman behar dutela ohartarazi dute antolatzaileek: *Martxoak 8 de Marzo, Emakumeen Nazioarteko Eguna, Día Internacional de las Mujeres*.

Afixak formatu digitalean nahiz fisikoan aurkeztu ahalgo dituztela ere adierazi dute, eta, gaineratu, partaideek lanak sortzeko erabateko askatasuna dutela.

Lanak, ikusgai

Lehiaketara aurkeztutako kartel guztiak Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroan jarriko dituzte ikusgai martxoaren 1etik 8ra; gauzak horrela, horiek bozkatu nahi dituzten herritarrek aipatu zentrorra joan beharko dute. Iritzi horiek aintzat hartuko da bigarren eta hirugarren sariak erabakitzeko.

Kartel irabazlea, berriz, epaimahiak erabakiko du: Lasarte-Oriako Udaleko berdintasun teknikariak eta diseinu arloko profesionalak osatuko dute. Garaileak 120 euroko saria jasoko du, eta, bigarrenak, aldiz, 90 euro. Hirugarrenak, berriz, 60 euro.

Herritarrek egitasmoan parte hartzea deitu dituzte udal ordezkariak, eta gaineratu, informazio gehiago nahi duenak oinarriak kontsulta ditzakela. Horretarako Sexuen Elkarbizitzarako Emakumearen Zentrorra joan beharko dute, edo emakumezentro@lasarte-oria.eus helbidera idatzi. Udalaren web atarian ere eskuragarri da informazio guztia.

Herritarrekin batera prestatzeko sanpedroak

Orain arteko bi parte hartze prozesuak bateratu ditu udalak: batetik, herritarrek iradoki ahalko dituzte jarduera edota kontzertuak, eta, bestetik, omendua izango den norbanako edo kolektiboa. Festak ekainaren 26tik 30era arte ospatuko ditugu aurten

Txintxarri

Herritarren Partaidetza departamentuko zinegotzi Nagore Duranek zehaztu duenez, aurreko urteetan egin dituzten bi parte hartze prozesuak bateratzea erabaki dute aurten eta herritarrek "gaurtik bertatik" has daitezke proposamenak bidaltzen. Udalaren webgunea edota udal eraikin hauetan jarri dituzten parte hartze postontziak erabil ditzakete horretarako: Sexuen Elkarbizitarako Emakumeen Zentroa, Manuel Lekuona Kultur Etxea, Gaztelekua, udaletxea (eraikin zaharreko arkupeetan) eta Maialen Chourraut kiroldegia. Aurtengo jaien antolaketan



Nagore Duran eta Txus Alonso zinegotziak, prozesua aurkezten. TXINTXARRI

parte hartzeko azken eguna otsailaren 16a izango da, igandea.

Agerraldian parte hartu du baita ere Jaiak departamentuko zinegotzi Txus Alonsok eta herriko festetako jardueren garrantzia azpimarratu du: "Festak aberastu bakarrik ez, elkarrekiko lotura eta sentimenduak indartzen dituzte herritarrek proposatutako ekimenek. Oso garrantzitsua iruditzen zait denok gure ideiak mahai gainean jartzea, San Pedro Jaiak udalerraren aniztasun eta sormenaren isla izaten jarrai dezaten".

Parte hartze prozesu bateratuak "bi ardatz nagusi" dituela adierazi dute Duranek eta Alonsok: herritarrek, batetik, jarduerak eta musika taldeak (Euskal Herrikoak nahiz Espainiar Estatuak) proposatu ahalko dituzte, eta, bestetik, zein norbanako edo kolektibo omenduko duen udalak. Aintzatespena nork mezezi duen zehazterakoan arazoitu egin beharko dute iradokizuna, udalerraren alde egingdako lana edo orain arteko ibilbidea kontuan izanda.

Azken urteetan ekainaren 28tik uztailaren 2ra ospatu izan ditugu

sanpedroak, baina, aurten, aurreratu egingo dituzte bost festa egunak ekainaren 26tik 30era (ostegunetik astelehenera).

Amaitzeko, herritarrek animatu dituzte jaiak prestatzeko parte hartze prozesuan parte hartzera: "Nahi dugu ideiak, ilusioak eta sormena islatzea proposamenetan. Aukera paregabea iruditzen zaigu inklusiboak eta herria ordezkatuko duten festak prestatzeko, denok batera".

Ezaugarriak, laburrean

Udal ordezkariek adierazi dute otsailaren 16a izango dela parte hartzeko azken eguna, igandea. Bideetako bat udalaren webgunea erabiltzea da, sakelako telefonoarekin QR kode hau eskaneatuta:




TXINTXARRI

Herrian ikasi eta haztearen abantailak

2025-2026 ikasturterako matrikulazio kanpaina hastear da eta 2-3 urte bitarteko haurren familiek herrian bizi eta ikastea aukera dezaten, aurten ere, Sasoeta-Zumaburu eta Garaikoetxea-Landaberi ikastetxeek matrikulazio festa aurrera eraman zuten, udalarekin lankidetzan. Iaz, Okendo plazan elkartu eta zenbait familiarren lekukotza partekatu bazituzten, hilaren 26an Oriarte-Landaberi institutuko patio estalian festa bat gauzatu zuten, musika, dantza eta jolasekin.

Familiekin partekatu eta eskaintzeko dutena ezagutarazteko baliatu nahi izan zuten herriko bi ikastetxeek aipatutako jai hori. Globo horixketan jaso bezala, beraien seme-alabek *Herrian ikasi eta hazi*

egitea aukera dezaten. Eguraldi ezatseginak ez zuen gehiegi lagundu, baina, hala ere, eguerdi partean gehixeago izan ziren bertaratutakoak. Bi ikastetxetako zuzendariak, Oiartzta Panpliega (Sasoeta-Zumaburu) eta Olaia Recondo (Garaikoetxea-Landaberi), informazio orriak eta poltsa bana oparitu zieten familiei, beraiekin hitz egin eta azalpenak emateaz gain. Herrian errolatuta eta matrikulatzeko adinean dauden 250 haurrek festan zehar opari batengatik trukatzeko txartela jaso zuten etxean, bi ikastetxeei buruzko informazioarekin batera. Ainara Elicechea Kultura zinegotzia bertan izan zen bere haurrarekin eta Maite Iglesias Hezkuntza zinegotziak ere parte hartu zuen.



TXINTXARRI

Ibrahima Balde-ren bidaiak

Artedrama teatroak *Miñan* antzelanaren emanaldia egin zuen hilaren 25ean, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. Izen bereko liburuan oinarritutako antzezlanak da, Ibrahima Balde afrikarraren bizitzaren kronika jasotzen duena, protagonistak ahoz kontatua, eta Amets Arzallusek idatziz jasoa. Jakin-mina piztu zuen emanaldiak eta aretoa ia bete zen Alhassane anaia gaztearen bila ("miñan" pular hizkuntzan) Europara bidea hartu behar duen etorkinaren historia ikusteko. Haurra dela, aita hil eta eskola utzi beharko du Baldek, lan egiteko. Liberiara iritsiko da eta ahal duenean lan egin. Ama gaixotzean, ordea, etxera itzuliko da anaia eta bi arrebak gazteagoak zaintzeko. Hura osatzean aprendiz hasiko da kamioi batean, besteak beste, anaia txikiak ikasten jarrai dezan. Egun batean, ordea, amak deituko dio falta dela esateko eta hura bilatzeko oztopoz beteriko bidaiari ekingo dio.

Bizipenak euskaraz truka ditzatzen

Trukelandia ekimenaren aurkezpena aurrera eraman dute Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak. Horren helburua da, familia lasarteoriatarrek, hilabetean behin, bizipenak partekatzea, euskaraz. Inskripzioa martxan da dagoeneko

Txintxarri

Bizipenak elkarbanatzea magikoa dela agerian geratu zen, hilaren 23an, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. Trukelandia egitasmoaren aurkezpena egin zuten Ttakun KEK eta udalak, eta bertan batu ziren herriko 50 familia inguru. Hiru laguntzaile fin izan zituzten horiek guztiek: Olatz Bardaji GurasoLandia gidatzen duen begiralea, Porrotx paila-zoa eta Josu Txapartegi Txapas. Eurak arduratu ziren saioa gidatzeaz.

Koloretako puxikekin eta oparitzoz betetako poltsatxoekin apaindutako oholtza gainera agertu ziren aipatu hiru laguntzaileak. Euren buruak aurkeztu, eta berala jarri zituzten bertaratu diren guraso eta haurrak kantuan eta dan-



Manuel Lekuona Kultur Etxean aurkeztu dute Trukelandia egitasmoa. TXINTXARRI

tzan. Izan ziren eszenatoki gainera igotzera animatu zirenak ere, eta denek elkarrekin ederki igaro zuten arratsaldea; askotariko doinuak aireratu zi-

tuzen, *Ikusi mendizaleak, Txiki-txikia, eta Euri tanta*, besteak beste.

Ostean, Ana Labaka Euskara saileko zerbitziburua igo zen

agertokira. Hitza hartu zuen, eta Trukelandiaren berri eman zien aretoan bildutako gurasoei. Gogorazi zuen GurasoLeku programan kokatzen den egitasmoa dela, eta hori labur-labur azaldu zien. Kontatu zuen gurasoen topalekua dela, baina ez soilik horiena, baizik eta familia osoarena, eta, noski, euskararena ere. Honako adierazpenok gaineratu zituen jarraian: "Euskara familiako kide bat gehiago izatea nahi dugu". Gauzak horrela, aisia jarduera baten aitzakian, sendiko kideak beste familietakoekin euskaraz hitz egiteko topalekua eskaintzen du Trukelandiak.

Funtzionamenduari dagokionez, aipatu zuen ekimenean parte hartzeko izena ematen duten familiak talde txikietan banatuko dituztela, eta hilean behin elkartuko direla talde horiek. Topaketa horietan ez da hezitzailerik egongo, beraz, taldea osatzen duten familien esku egongo da saioak pentsatu eta prestatzea. Horien bitartez, partaide guztien artean euskaraz aritzeko gunean sortzea da helburua, familia bakoitzak ezagutzaren bat partekatu beharko du taldekide duen beste familiarekin (jolasak, mahai jokoak, abesti eta dantzak, errezetak eta abar).

Elkartzeko egun eta orduak taldeko kideek adostuko dituzte; topaketa aurrera eramateko lekua aukeratzeko, berriz, Ttakun Kultur Elkartearen kideek lagunduko dute.

Izen ematerako deialdia

Aurkezpen ekitaldiaren amaieran, oparitzoz betetako papezko poltsatxo bana jaso zuten bertaratu diren familiek. Horren barruan, besteak beste, izen emateko orri bat topatuko dute, eta hori izango da egitasmoan inskripzioa egiteko interesa dutenek erabili beharko dutena. Eskatzen diren datuekin bete ostean, Ttakun Kultur Elkartera eraman beharko dute, eta horretarako epemuga bat izango dute; otsailaren 13a izango da horiek entregatzeko azken eguna.

Izen ematea sarean egin nahi dutenek ere izango dute horretarako aukera. Horretarako, ondorengo formularioa bete beharko dute: labur.eus/trukelandia25

Antolatzaileek jakinarazi dute behin izen emate epea amaituta osatuko dituztela taldeak, eta Ttakuneko kideek jakinaraziko dizkietela partaideei saioen gaineko xehetasun guztiak.

2024ko txintxarri azalrik politenaren bila! Eman zure bozka:



NATIONAL txintxarri GRAPHIC

Lasarte-Oriako oihaneko aitborrak

MERKEALDIA Aitbor eguzkiak **2mó 189€**

MULTIÓPTICAS HAZI 17.151.000 OIA

txintxarri

Ereindakoa jasotzen hasi dira

Elkartasuna adierazteko ekimenak

USURRILGO LANBIDE ESKOLA ATE IREKIAK

txintxarri

30 urtez jaien berri ematen

Egunez zein gaeuz, harro!

Gas aseguruak

txintxarri

30 urtez jaien berri ematen

Gas aseguruak

txintxarri

Datorren urtera arte!

PISARRO HORTZ KLINIKA DENTAL

txintxarri

Berotik ihesi, goxotasunera

Kultura, kale eta plazetara

MERKEALDIA **2 MÓ 189€**

MULTIÓPTICAS HAZI 17.151.000 OIA

txintxarri

Egunerokoaz, zirika eta umoretik

Desabantailan daudenentzat

MERKEALDIA **2 MÓ 189€**

MULTIÓPTICAS HAZI 17.151.000 OIA

txintxarri

Urrea balio dutenei omenaldia

Kontxako Bandera ere, zakura

UDAL EUSKALTEGIA - 2024-2025 ikasturtea

txintxarri

Han eta hemen gozatu dute

Palestina eta Libanoren alde

Parte hartzen duzuenon artean TXINTXARRI-REN BOST ATERKI SORTA (arrosa eta beltz bana) zozkatuko ditugu! Animatu!

'Marco' filmaren nondik norakoak jakin dituzte

Moriarti ekoiztetxeko kideek egindako lana azaldu dute Aitor Arregi eta Joxe Mari Goenaga zuzendariek eta Xabier Berzosa ekoizleak. Mauthausen-go kontzentrazio esparruko preso gisa aurkeztu zuen Enric Marcoren bizitza du oinarri, gerora iruzurtia zela jakin zen

Maitane Aldanondo

Bide luzea egin zuen Moriarti ekoiztetxeak Enric Marcoren eskandaluaren atzeko historia kontatzeko. Duela hamazazpi urte jarri zuten martxan, Jorge Gil Munarriz gidoilariak planteatu zien dokumental bat egitea, baina pixkana beste forma bat hartzen joan zen. Okendo Zinema Taldeko kide Mikel Yartzak galdetuta, Arregik hasi du ibilbide horren azalpena. 2006an Gil Munarrizek eraman zien gidoia dokumentala egin asmoz. Berak konfiantzazko harremana sortu zuen Marcorekin eta bi urtez landu zuen dokumentazioa. 2008an Marcok esan zion Alemaniara joan behar zuela paper batzuk jasotzera, hango presondegi batean egon zela erakusteko. Grabatu nahi izan zuten balizko dokumental horretako baina protagonistak esan zien ezinezkoa zela. Gerora, aldiz, aitortu zien beste ekoiztetxe batekin adostuta zuen dokumental baterako jaso zutela une hori.

Ateak ixten zirela ikusita, proiektua bertan behera utzi zuten. 2010ean, ordea, Zinemaldian Kur-sailetik atera ziren bazkaltzera eta "kalearen beste aldean Marco eta emaztea zeuden butifarra batekin". Berari buruz egindako lanarekin gustura ez zegoela eta beste zerbait egitea nahi zuela esan zien, eta beraiekin ondo portatu ez zela onartu. Hilabete gutxira 15 bat orduko elkarrizketa luze bat grabatu zioten, jaiotzetik ordura arte bizitako kontakutua zien. "Material interesgarria" atera zen, baina horrekin zer egin oso ondo ez zekitelako argitu du Arregik. Pixkana bi generoren arteko nahasketa izan zitekeela pentsatzen hasi ziren. "Egia, gezurra. Uste dut istorio honekin oso ondo datorren zerbait dela. Fikzioa, errealitatea... Indarra hartzen joan zen hibrido bat egitea, baina oso ondo jakin gabe zer zen".

Garai horretan hasi ziren fikzioa egiten, *80 egunean, Loreak...* 2013an



Emanaldiaren aurretik eta ondoren hitz egin zuten Moriarti ekoiztetxeak. TXINTXARRI

ENRIC MARCAREN HISTORIA KONTATZEKO PROIEKTUA DUELA HAMAZAZPI URTE ABIATU ZUTEN

Javier Cercas idazleak berari buruzko liburu bat idatzi nahi zuela jakinarazi zien Marcok eta harekin harremanean jartzea proposatu. Kontakizunean sartzeko interesgarria zelakoan, Gil Bartzelonara joan zen biekin elkartzera. Idazlea harritu egin zen dokumentalean agertzeko proposamenarekin, eta uko egin zion. 2017 urtearen bueltan erabaki zuten fikziozko lana izango zela, keinuak eginez errealitateari eta 2023an errodatu zuten. "Argi berdea" *Balenciaga* telesailarekin hasi eta berehala jaso zuten. Marco aurreko urtean hil zen.

Marcorekin harremana

Marcorekin izandako harremanari buruz galdetuta, Goenagak berarekin oso gutxi egon zela zehazten du. Pelikula egitean pertsona ez epaitzen ahalegindu zen, nahiz eta ikusi hasieratik

nartzisista eta fokua behar zuen norbait zela, gabezia asko zituena haurtzarotik eta "bere bizitzarekin erabat asebeteta ez zegoen pertsona bat zen eta beste bizitza bat sortzea erabaki zuena". Hala deskribatu du: "Harroa, gustatzen zitzaion hitz egitea eta bere buruari entzutea, bazuen diskurtso bat". Gauza txarrak eta onak dituela uste du, eta berarengan gauza arraroak ikusi arren, "defendatzen zuen kausa zilegia zenez", jendeak bere susmoak alde batera uzten zituela. Ildo beretik, Arregik Marco ezagutu zuenean nahasketa bat sentitu zuen "gizon jasanezina" eta "seduktorea" baitzen. "Txundidura" edo "deskoloke" horrek pentsarazi zien istorioak kontatzea merezi zuela.

Publikoari galderak egiteko aukera eman die orduan Yartzak, eta material hori ikusgai baden galdetu diete. Hori ez baina bai eskandaluaren aurreko bai ondorengo materiala Interneten badela esan dio Goenagak, "Marco nolakoa zen ikusteko". Beraiek sortutako hori ikusi zuena Eduard Fernandez aktorea izan zen eta berarekin lan egiteko prozesua nolakoa izan den jakin nahi izan du aurkezleak. "Pro-



NEURE KABUZ
GORKA ALVAREZ

Adimen artifiziala; hezkuntza tresna edo mehatxua

Azken urteotan, hezkuntza formaletik kanpo nabilen honetan, bigarren plano batetatik begirada berriak izan eta hausnartzeko aukera izaten ari naiz. Adimen artifizialak, hezkuntza mailan izan duen sarrerek, interesa piztu du nigan eta hausnarketa partekatuta bat egitea otu zait.

Berria den orok, gure gizartean sortu ohi duen beldur edo mesfidantza hortaz haratago, baditu hainbat puntu, erabileran oinarritzen direnak eta egunerokoan aplikatzeko oso interesgarriak iruditzen zaizkidanak.

Batetik, ikasketa prozesuen pertsonalizazioan hobekuntza ekar dezakeela uste dut. Jada errealitatea direla iruditzen zaizkit plataforma berriek, ikaslearengana zehatzago iristeko eskaintzen dizkiguten aukerak. Bestetik, irakasle moduan zuzenketak, erregistroak, errubrikak, ikasleen atazen jarraipenerako tresnak eta azken batean lan administratibo, zein antolakuntza lanerako erraztasunak eskaintzen dizkiguten hainbat baliabide berri ere eskura izateko sortu dira azkenaldian.

Gutxi aipatzen den arren, behar bereziak dituzten ikasleen material desberdinak sortzen ari dira etengabe alor honetan eta bereziki deigarria da zein harrera ona jasotzen ari diren hezkuntza komunitatean.

Hiruzpalau argi izpi hauen alboan hala ere, laino ilunak ageri dira. Batetik, beti lehen planoan izan beharko genukeen arrakala digitalaren muga hor dago. Ikasle guztiek ez baitute teknologia mota aurreratu hauek erabiltzeko aukerarik eta ikasle zehatzez haratago, hezkuntza komunitate desberdinekin ere, askotan ez daukate behar liratekeen baliabide nahikoa hauek eskuragarri izan eta ikasle zein irakasleei erabilgarri jartzeko.

Irakasleen artean ere, adimen artifizialaren erabileraren aurka dagoen asko badira. Gizatasun eza horren inguruan euren ideiak sostengatzen dituztenak. Ene ustetan, mitotik gehiago duena, jakinda teknologiak gizatiarra den zati hori ordezkatzeko, gaur egunean oso zaila ikusten dudala eta gehiago ikusita irakaslearentzat bere eguneroko lanerako laguntza moduan, ikaslearekiko tresnen sorrera onuragarrian edota hezkuntza eskaintza integratuta bat eskaintzeko aukera on bat bezala.

Honekin guztiarekin, erronka handi dauka hezkuntza komunitateak datozen urteetan, adimen artifizialak eskain ditzakeen abantailak aztertu, ulertu, hausnartu eta txertatzera bidean. Iritsi diren teknologia berri guztiek bezala zalantza sortzen du gauzak egiteko modu berri honek. Geratzeko iritsi direnaren itxura dute eta irakasle zein ikasleentzat erabilera egoki bat sustatuz gero, izugarriko potentziala dutenaren ideiarekin bat nator. Datozen urteetan hezkuntza elementu eraldatzaile nagusienetariko bat izango dira eta horren aurrean prest egotea, egokitzea eta erabilera modu egokiak sustatzea egokitzen zaigu. Erronka ez da makala.

zesu pribatu eta pertsonala" egin zuen, eta aktore gisa "oso intuitiboa eta aldi berean tekniko" da. Batzuetan espero zuena baino hobe egiteaz gain, edizioan jabetu zen errodojean ikusi ez zituen zenbait detaileez. Goenagak, berriz, gehitu du pertsonaia sortzeko oinarri bat bilatu nahi izan zuela Fernandezek Marcoren haurtzaroan. "Ama eroetxe batean egon zen, bera eroetxe batean jaio zen eta horrek de-

serrotzea eragin zion. Eta Eduardentzako hor zegoen bere motorra pertsonaia eraikitzeko".

Berzosa, berriz, finantziarioa lortzeko prozesua azaldu du. Dokumentaletik filmara aldaketa eta beraien barne prozesua luzea izan bazen ere, dirua lortzeko orokorrean izaten diren modukoak izan zen. "Proiektu zaila da. Berezia da, berez, kontatzen duzu historia bat denok ezagutzen duguna eta misterio gabe".

Herriko atletek, bi domina eta hainbat final


Lasarte-Oriako atletak ederki jardun dira maila absolutuko Euskadiko txapelketan. Ostadar SKTko Naroa Furundarenak jauzi hirukoitzeko Euskadiko titulua berritu du; Real Sociedad taldeko Yeray Veronizek brontzezko domina jantzi du 60 m. lasterketan

Txintxarri

Lasarte-Oriako atletek Euskadiko txapelketari aurre egin zioten hilaren 25ean eta 26an, Donostiako Antonio Elorza belodromoan. Modalitate ezberdinetako probetan izan ziren lehian herritarrek eta finalerako ere sailkatu ziren. Podiumean, aldiz, Ostadar SKTko Naroa Furundarena eta Real Sociedad taldeko Yeray Veroniz izan ziren. Lehena jauzi hirukoitzeko txapelkun izan zen eta bigarrenak brontzea jantzi zuen 60 metroko lasterketan.

Jauzi hirukoitzeko zein luzera jauziko zortziko finaletan Ostadar SKTko ordezkariak izan ziren lehian: Naroa Furundarena, Eider Redondo eta Oinatz Almagro lehenean eta Enara Gonzalez, aldiz, luzera proban.

Aipatu moduan Furundarenak urrezko domina jantzi zuen. Lehen saiakeran 12,37 metroko jauzia egin zuen herritarrek



Furundarena, lehian. OSTADAR ATLETISMOA

baina ezin izan zuen marka hori ondu, min hartu zuelako.

Lehiakideek ere ezin izan zuten Furundarenaren jauzia gainditu eta horien artean izan zen Eider

Redondo gaztea. Azken saiakeran 11,22 metroko marka egin eta zazpigarren amaitu zuen lehia. Eta 13,07 metroko jauziarekin seigarren postuan izan zen Oinatz Almagro gaztea.

Luzera jauziko podiuma eskutik ihes egin zion Enara Gonzalez. Hirugarren postua eskuratu zuen Real Sociedadeko Iraia San Nazarioren antzera, 5,31 metroko jauzia lortu zuen talde urdin-beltzeko gazteak, baina lehiaketako jauziak aztertuta, Errenteriako atletaren aldekoa izan zen epaia.

Lasterketa probetan eta pisu jaurtiketa probako finaletan ere izan ziren lasarteoriatarrek.

Abiadura lasterketan, 60 m. proban lau herritar izan ziren lehian: Real Sociedad taldeko Yeray Veroniz eta Naroa Elvira, Atletico San Sebastian taldeko Nerea Eugi eta Ostadar SKTko Iraia Alkorta.

Espainiako kros txapelketan lehian

Maila ezberdinetako krosoko Espainiako txapelketak lehiatu dira hilaren 25ean eta 26an, Getafen (Madril). Bakarkako zein autonomia erkidegoen arteko borroka handia izan da eta 23 urtez azpiko mailan Lasarte-Oriak ordezkaria izan du, Aimar Sukunza. Herritarrek Euskadiko selekzioarekin parte hartu zuen hitzorduan eta taldekako txapelketan bederatzigarren postuan sailkatu zen. 10 kilometroko proba gauzatzeko 37.45 segundo behar izan zituen herriko korrikalariak.



Sukunza, Getafen. K. GOMEZ

Lokatza alde batera utzita, Idiazabalgo Herri krosa ere lehiatu zuten hilaren 26an. 10 kilometroko lasterketan hainbat herritar izan ziren korrika eta azkarrena, Raul Gomez Margallo izan zen. Lasarteoriatarrek 34.46ko marka egin zuen helmugan.

Eta hilaren 19an, Debako herri krosan ere izan zen herritarrik, Mari Carmen Olasso. Beterano mailako lehen postuetan izan zen 46.05 eginez.

Veroniz eta Eugi finalera iritsi ziren. Lehena podiumeko hirugarren mailara (6,95) igo zen, Eugi, aldiz, zazpigarren (7,93) izan zen.

200 metroko lehian ere izan zen Eugi eta seigarren postuan amaitu zuen finala 25,26 eginda.

800 metroko B finaletan Ostadar SKTko Saioa Menta (02.31,37) eta Julen Goenaga (01.59,80) izan ziren lehian eta 1.500 metroko lasterketa nagusian, Aloña Men-

diko Jon Presak (04.03,77) parte hartu zuen.

Horiez guztiez gain, Oihana Igarrirek laugarren postuan (10,08 m.) amaitu zuen pisu jaurtiketa proban.

Absolutuek ez ezik, eskolarteko gaztetxoek ere belodromoan lehia izan zuten hilaren 25an bertan, goizean. Ostadar SKTko alebin eta infantil mailako gaztetxoak ederki lehiatu ziren jardunaldiko proba ezberdinetan.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Hernani KE - Ostadar SKT Igandea. 16:00. Zubipe, Hernanin.
GORENGO MAILA
Touring KE B - Ostadar SKT Larunbata. 17:30. Fanderia, Errenteria.
ERREGIONAL I. MAILA, KOPA
Ostadar SKT - Vasconia CD Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.
Irauli Bosteko KKE - Texas Lasartearra CF Igandea. 15:30. Matigoxotegi, Donostian.
OJM, JAITSIERA
Lengokoak CD - Ostadar SKT Larunbata. 19:15. Cesar Benito, Donostian.
JUBENILEN GORENGO MAILA
Bergara KE B - Ostadar SKT Larunbata. 16:30. Agorrosin, Bergaran.
J. I. MAILA, IGOERA
Danena KE B - Texas Lasartearra CF B Igandea. 16:30. Elbarrena, Zizurkilen.
J. I. MAILA, KOPA
Texas Lasartearra CF - Euskalduna A. B Larunbata. 16:45. Michelin kirol gunean.
J. I. MAILA, UDABERRI KOPA
Ostadar SKT C - Danena KE C

Larunbata. 18:40. Michelin kirol gunean.
OKM, JAITSIERA
Ostadar SKT - Tolosa CF B Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
ARETO-FUTBOLA
I. MAILA
Eguzki Arkupe Rehab. - Martutene KE Zumardi Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
III. MAILA
Ekin Oriá Futsal - Eguzki ISU Leihok Ostirala. 21:00. Uzturpe pil., Tolosan.
GAZTEEN MAILA
Eguzki Bod. Ayesa - Lauburu KE Ibarra B Larunbata. 11:00. Maialen Chourraut kirol.
KADETE MAILA
Eguzki Goxokis Goxua - Coinbroker Aloña Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
SASKIBALOIA
II. MAILA
ZAST Oak - Ostadar SKT Igandea. 16:00. Aritzabatalde kirol., Zarautzen.
III. MAILA
Ostadar SKT - Errotaundi ISB Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.

JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA
Ostadar SKT - ZAST Esel Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
Easo Basket Oriamendi - Ostadar Beltza Igandea. 12:00. Paco Yoldi kirol., Donostian.
EUSKAL LIGA, KADETEA
Barakaldo - Ostadar SKT Larunbata. 13:00. Barakaldo, Bizkaian.
BOLEIBOLA
EUSKAL LIGA, II. MAILA
Ostadar SKT - Galdakao BT Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
SENIOR MAILA, GIP. TXAPELKETA
Vendetta - Ostadar SKT Larunbata. 16:30. Mons kirol., Donostian.
JUBENIL MAILA, GIP. TXAPELKETA
Ostadar SKT - Aldapeta Maria A Igandea. 11:15. Maialen Chourraut kirol.
KADETE MAILA, GIP. TXAPELKETA
Ostadar SKT B - La Asuncion Izukaiz Larunbata. 13:00. Maialen Chourraut kirol.
PILOTA
UDABERRI, NAGUSIEN I. MAILA
Eibar 2 - Intza Ostirala. 18:30. (2. partida). Astelena pil., Eibarren.

UDABERRI, GOMAZKO P. NAGUSIAK
Danok Bat - Intza Larunbata. 10:00 (1. partida). Miruaitz, Mutrikun.
TRINKETEA, NAGUSIEN II. MAILA
Gazteleku - Intza (Solano) Larunbata. 15:30 (2. partida). Ametsa tr., Iruran.
EPLE - Intza (Oiazabal) Igandea. 13:30 (1. partida). Ametsa tr., Iruran.
ESKUZ BINAKA, INF. I. MAILA
Oiarpe 2 - Intza Ostirala. 18:00 (1. partida). Madalensoro, Oiarzunen.
ESKUZ BINAKA, INF. II. MAILA
Intza - Behar Zana Larunbata. 18:30 (2. partida). Loidibarren pil.
ERRUGBIA
EUSKAL LIGA, II. MAILA
Envases RC Rioja - Gipuzkoa Sortzen Larunbata. 16:00. Logroño, Errioxan.
IGERIKETA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak Gipuzkoako Neguko txapelketan parte hartuko dute. Larunbata eta igandea. Bergaran.
GIPUZKOA SARIA
Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta

absolutu mailako igerilariak Gipuzkoako Neguko Sarian lehiatuko dira. Larunbata. 15:30. Alluralde kirol., Andoainen.
ATLETISMOA
EUSKADIKO TXAPELKETA
Pista estaliko master mailako Euskadiko txapelketan zein maila absolutuko 3.000 metroko tituluko lehian izango dira herritarrek. Igandea. Antonio Elorza Bel., Donostian.
XAKEA
II. MAILA
Gros K - Taula A Larunbata. 16:00. Karmelo Balda pil., Donostian.
III. MAILA
Agustin de Leiza C - Taula B Larunbata. 16:00. Andoainen.
GAZTEEN TXAPELKETA
Gipuzkoako txapelketako jardunaldia jokatuko dute. Igandea. 10:00. Karmelo Balda pil., Donostian.
AUTOMOBILISMOA
SARI BANAKETA
Euskadiko Automobilismo Federazioak 2024 urteko lehiaketen sariak banatuko ditu. Igandea 12:00. Agurain, Araban.

Ostadar SKT, lehen postua ziurtatzeko lehian

Asier Acuriolak zuzentzen duen taldeak Euskal Ligako I. mailako igoera jokatuko du. Fase berriari begira, bere multzoko lehen postua ziurtatu nahi du talde urdin-beltzak. Lehia amaitzeko bi jardunaldiren faltan, puntu bakarra behar du helburua betetzeko

Txintxarri

Ostadar Boleibola ataleko Euskal Ligako taldea matematikoki I. Mailarako igoera fasea jokatuko du.

Talde urdin-beltzak puntu garrantzitsuak eskuratu zituen hilaren 25ean, etxean. Lasarte-Oriara bidaiatu baino lehen Nafarroako Unibertsitateak hiru neurketa besterik ez zituen galdu; Maialen Chourraut kiroldegian, ordea, 3-0 garaitu zuen Asier Acuriolak zuzentzen duen taldeak.

Neurketa, hasieran, nahiko berdindua izan zen; bi taldeek akats ugari egin zituzten. Jokoak aurrera egin ahala, Ostadarrek erasoetan aurre hartzea lortu zuen eta 25-19 amaitu zen lehen jokoak.

Lehenengo seteko kezka alde batera utzita, bigarren eta hirugarren jokoetan nagusi izan zen etxeko taldea. Talde urdin-beltzeko entrenatzailearen hitzetan, "nafarrek defentsa lan ederra egin behar izan zuten eta horrek



Ostadarreko jokalaria, errematea egiten. TXINTXARRI

ez zien eraso sortzeko tarterik eman". Ondorioz, 25-13 eta 25-16 irabazi zituzten Ostadarrek bi setak.

Igoera fasea eskura

Eta eskuratutako puntuei esker, denboraldiko helburua beteko

du talde urdin-beltzak, igoera fasea jokatzea.

Lasarte-Oriako taldeak lasai egon beharko lukeela dirudien arren, geratzen diren azken neurketetan asko izango du jokoan. Acuriolak azaldu moduan, "multzo bakoitzeko lehen lau taldeek jokatuko dute fasea eta igoerako gurutzaketak sailkapenaren arabera egingo dira. Hau da, A multzoko burua B multzoko laugarrenaren aurka jokatuko da, A multzoko bigarrena B multzoaren hirugarrenaren aurka eta horrela hurrenkera jarraituko da. Beraz, garrantzitsua da B multzoko lehen postua matematikoki emango digun puntua eskuratzea. Eta gure esku dagoela uste dut".

Hori dela eta, fase erregularrereko azken bi hitzorduak garrantzitsuak izango dira talde urdin-beltzarentzat. Lehena otsailaren 2an, Maialen Chourraut kiroldegian jokatuko dute, 18:00etan; Galdakao BT izango du aurkari Ostadarrek.

Buruntzaldea IKTko alebinek markak ondu dituzte

Kerman Miguel eta Aitor Ormazabal gazteak lehen postuetan sailkatu dira Alebin Teknikazio Sarian

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko Kerman Miguelek eta Aitor Ormazabalek Alebin mailako Teknikazio Sarian parte hartu zuten, hilaren 26an.

Goiz eta arratsaldean lehiatu ziren gazteak, goizeko jardunaldian bi proba egin zituzten eta arratsaldekoan, aldiz, bakarra. Igerilari gazteek euren mailako lehen postuetan egotea lortu zuten eta saio guztietan markak ondu zituzten. Ikusi azpiko koardroa.

Buruntzaldea IKTko arduradunak gustura daude bi ordezkari egindako lanarekin eta azaldu dutenez, probak sari baten izena bazuen ere, denbo-



Miguel eta Ormazabal. BURUNTZALDEA IKT

rak hartzeko jardunaldi bat besterik ezin zen izan eta ez zen garaikurrik banatu.

Taldeko gainerako alebinekin batera otsailaren 15ean lehiatuko dute ligako hurrengo hitzordua Maialen Chourraut kiroldegian.

Aitor Ormazabal

- 50 m. libre, 31,77. Probako bigarren eta bere adineko lehena izan zen.
- 200 m. libre, 02.36,32. Sailkapen orokorrean zein bere adinekoen artean laugarren izan zen.
- 400 m. lau estilo, 06.12,01. Lehen postua eskuratu zuen.

Kerman Miguel

- 50 m. libre, 38,75. Bere adineko bederatzigarrena izan zen.
- 200 m. lau estilo, 03.32,98. Bere adinekoen artean laugarrena izan zen.
- 200 m. bular, 03.47,86. Sailkapen orokorrean seigarren izan zen eta bere adinekoen artean, hirugarren.

Felix Manso, beterano mailako Gipuzkoako txapeldun

Herritarrak lurraldeko titulua berri du. Egun taldeko txapelketa ari da lehiatzen Createch Medical taldean

Txintxarri

Xake zaletuek beterano zein emakumezko mailako Gipuzkoako txapelketa lehiatuz eman zioten amaiera 2024. urteari. Abenduaren 26tik 30era Errenteriako Beraun Bera Xake Klubean jokatu ziren lehiak eta beterano mailan, titulua berri duen Felix Manso herritarrak.

Mansoz gain beste 11 parte hartzaile izan ziren, beterano mailako lehiaketan.

Bost txanda jokatu zituzten lehiakideek eta azken txandarn

ostean, lau jokalaria sailkapenean parra zeuden, 3,5 punturekin: Felix Manso, Ramon Nogues, Josu Tornay eta Andoni Orube. Berdinketa hausteko puntuazioa kontuan izan behar izan zituzten epaileek txapelduna izendatzeko; herritarraren aldekoa izan zen erabakia. Eta Felix Mansok 2023ko titulua mantendu zuen.

Taldekako liga

Manso herritarra taldekako txapelketan ere ari da lehian; Elgoibarko Createch Medical tal-



Felix Manso (eskuineko lehena) herritarra, garaikurra jasotzen. BIDASOA XAKE KLUBA

deko kide da. Gorengo mailako txapelketako B multzoan dago kokatua taldea eta egun sailkapeneko seigarren postuan daude.

Hileko azken jardunaldian Gros E izan dute aurrez aurre. Herritarrak bere norgehiagoka irabazi zuen arren, Elgoibarko taldeak 1,5 puntu eskuratu eta

donostiarra izan ziren garaile (2,5 p.).

Herriko Taula Xake Klubeko ordezkari dagokionez, bi taldeek binako berdinketa eskuratu zuten euren hitzorduetan eta puntuan gehitu zituzten sailkapenean.

Taula A taldeko kide guztiek parra egin zuten Beraun Bera B taldearen aurka. II. mailako lehiaketako lehen fasea ekuatorera iritsi da eta bere multzoko laugarren postuan da herriko ordezkaria.

Taula B taldean, aldiz, Juan Cruz Figueras eta Juan Luis Varela beteranoek garaipena eskuratu zuten eta Inhar San Sebastian eta Eneko Montes hasiberriek, ordea, ezin izan zituzten puntuak eskuratu. Hala ere, bi puntu horiei esker, bere multzoko buru mantendu da taldea.

Intzako kideak, hainbat lehiaketetan buru belarri

Eskuzko zein gomazko palako Udaberri txapelketan aurrera doaz Intzako pilotariak. Errendimendu mailako bikotekako lehiak, aldiz, ederki ari dira taldeko gaztetxoak. Trinketeko bakarkako txapelketa ere hasi dute pilota elkarteko kideak

Txintxarri

Intzako pilotariak txapelketa ezberdinetan murgilduta daude. Etxean zein kanpoan denetariako emaitzak eskuratu zituzten. Udaberri txapelketako neurketak jokatu ziren, hilaren 25ean, Michelin kirol guneko pilotalekuan.

Gomazko palako II. mailako seniorrek eman zioten hasiera goizeko jaialdiari eta Intza eta Aiako bikoteen arteko neurketa borrokatu eta luzeaz gozatu ahal izan zuten pilotalekura hurbildu ziren ikusleek.

Partida osoan zehar markagailua estu joan zen. Bikote bakoitzak ongi jokatu zuen aukeraturako pilota eta markagailua kolore batez bestera mugitu zen. Azken minutuetan 24-20 bideratua zuen neurketa etxeko taldeak, baina Intzako kide Ja-goba Mendizabalek min hartu eta pala ezin eutsirik jokatu zuen. Aurkariak ongi baliatu zuten egoera eta markagailuari itzulua eman zioten, 24-25.

Palako lehiaren ostean, eskuz binakako partida izan zen. Intzako bikoak Aretxabaleta izan zuen aurrez aurre eta ederki lehiatu ostean, 22-17 irabazi zuen etxeko bikoteak.



Gomazko palako Intza-Aia neurketako irudia. TXINTXARRI

Egun bat lehenago, Loidibarren pilotalekuan Errendimendu mailako bikotekako neurketak izan ziren eta bietan garaipena erdietsi zuten taldeko gaztetxoak.

Alebin I mailan, Aiur Gorostidi-Irai Jauregi bikoak 16-5 irabazi zuen Aizkorpe 3. Ostean, Eñaut Huicik eta Ekhi Maizek osatutako infantil II. mailako bikoteak ere bostean utzi zuten Oiarpe 2, 18-5.

Kanpoan ere fin ibili ziren Intzako ordezkariak eta Oiartzunen Infantil I. Mailako Oier Jauregi eta Kimetz Atorrasagastik 10-18 garaitu zuten Oiarpe 2.

Bestalde, Alebin II. mailako bikoak ezin izan zuten neurketa jokatu aurkari zuten Mundarrok lehiaketa utzi duelako.

Trinketean ere

Eta trinketeko bakarkako lehia ere hasi da. Lehen hitzorduan Intzako kide Beñat Olazabalek eta Aritz Solanok Hernaniko ordezkariak aurka neurtu zituzten indarrak Irurako Ametsa trinketean.

Hernaniko kide Jarak erraz gainditu zuten Olazabal (2-40); Solanok, aldiz, 40-31 garaitu zuten Arizmendi.

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak kale, gainerakoek bale

Lehen taldeak ezin izan du Lauburu KE Ibarra garaitu. Harrobiko taldeek berdinketa edo garaipena erdietsi dute

Txintxarri

Eguzki Aretu Futbola klubeko taldeek maila ezberdinetako Gipuzkoako ligako jardunaldiari aurre egin zioten hilaren azken asteburuan. Federatutako taldeetatik punturik erdietsi ez zuen bakarra izan zen Eguzkiko lehen taldea.

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones-ek talde gogorra izan zuen aurrean Maialen Chourraut kiroldegian, Lauburu KE Ibarra.

Yosu Lopezen taldeak lehen zatian ongi borrokatu zuen. Eguzki Arkupek markagailuan aurreratzea lortu zuen hamabosgarren minutuan eta ibartarren defentsa batek bere atean sartu zuen bigarrena.

Neurketak aurrera egin ahala ibarratarrak jokoan sartu eta etxekoan esperantzak zapuztu zituzten. Hiru minututan, partidari itzulua eman zioten hiru gol eginez eta ez zen horretan geratu, beste bitan ere bidali zuten baloia etxeko taldearen sarera.

Hori-beltzek ez zuten amorerik eman, ordea eta 3-5ekoa jarri zuten markagailuan 47. minutuan.

Tamalez, Laubururen erantzuna azkarra izan zen; hiru gol egin zituen aldea handituz.

Saiatu arren, Eguzki Arkupek ezin izan zuten aurkariaren atea berriro zulatuz; aurkariak, ordea, 3 eta 9koa lortu zuten epaileak txistu jo baino lehen.



Neurketako irudia. TXINTXARRI

Gainerako taldeak

Garaipeneko edo berdinketako puntuk igo ziren herriko taldeko gainerako ordezkarien sailkapenera.

III. mailako Eguzki ISU Leihoak taldeak launa berdindu zuen Egintzarekin. Eguzki Bodegas Ayesa jubenil taldeak Aldapeta C 4-7 garaitu zuen eta kadete mailan, Eguzki Goxokis Goxua 0-3 nagusitu zen Laskorain KE Aren aurka.

Euskadiko deialdia

Aretu futbol eskolako gazteei dagokionez, 12 urtez azpiko Euskadiko Selektzioak herriko taldeko bost kide deitu zituen hilaren 27an, Loiu (Bizkaia) egin zen entrenamendu saiora. Josu Garcia, Peru Azkarate, Unai Berasategi, Markel Murillo eta Axel Fuertes kideek lan ederra egin zuten saioan.

Beltzak-eko harrobiak, batean kale, bestean bale

16 urtez azpiko taldeak ezin izan du Txinbaz garaitu; 18 urtez azpikoak, aldiz, nagusi izan dira Durangoren aurka

Txintxarri

Beltzak Errugbi taldeko harrobiko bi neurketaz gozatu ahal izan zen hilaren 25ean goizean Michelin kirol gunean. Txanponaren bi aldeak jasan zituzten etxeko taldeek.

Lehen neurketan 16 urtez azpiko beltzen eta Txinbaz taldearen arteko lehia jokatu zen.

Beltzek Txingudi eta Baztanek osatutako taldea eusten saiatu arren, lehen zatiko bigarren zatian ihes egin zien aurkariak markagailuan; Txinbaz 16-36 gailendu zen. Neurketan Erik Perez Duran herritarrak bi gauzatzeko egin zituen.

18 urtez azpiko mailan, aldiz, nagusi izan ziren etxekoak. Hasieratik aurre hartu zioten Du-



Gesalaga Okelan Zarautz Beltzakeko 18 urtez azpiko taldeko kideak, erasoan. TXINTXARRI

rango Smurfit Kappari eta atse-denaldirako hamar puntuko aldea ireki zuten beltzek (17-7). Bigarren

zatian herritarrak izan ziren protagonistak, Eneko Sanchezek eta Lander Zabalak bina entsegu egin

zituzten eta neurketa 41-19 amaiztu zen.

Euskal Ligako Gipuzkoa Sortzen taldeek ere emaitza ezberdinak izan zituzten. Zarautzen nagusi izan zen I. mailako taldea; 90-0 garaitu zuen Santanderreko Blendio Cormoran taldea. II. mailan, aldiz, 26-7 galdu zuen Kanpanzar Arrasteren aurka.

Bestalde, Espainiako selektzioak Beltzak RT harrobiko Alex Saleta deitu du Europako txapelketako lehen partida prestatzeko. 34 jokalaria daude kontzentrazioan eta hortik aterako da Herbeheren aurka otsailaren 2an, Madrilen jokatuko duen zerrenda.

Euskadin kirola egiteko txartel birtuala, eskura


Eusko Jaurlaritzak sustatutako KirolTxartela Mugiment txartel birtualarekin bat egin du udalak. Hilaren 31etik aurrera, kirol abonatuak ekimenera atxiki diren Euskadiko beste herrietako hainbat instalazio eta zerbitzuetan sartzeko kodea eskuratu ahalko dute

Txintxarri

Lasarte-Oriako herritarrek KirolTxartela Mugiment txartel birtuala erabili ahalko dute hilaren 31etik aurrera. Herriko kirol instalazioetara sartzearaz gain, Euskadiko hainbat kirol gune eta zerbitzuetara sartzeko aukera izango dute txartel birtual horren erabiltzaileek. Agustin Valdivia alkateak eta Goizalde Pildain Kirol zinegotziak Eusko Jaurlaritzak sustatutako ekimena azaldu dute.

Txartel birtuala Eusko Jaurlaritzak kirol mugikortasuna sustatzeko martxan jarri duen ekimena da. Horren bitartez, Lasarte-Oriako kirol abonatuak ekimenera atxikiak dauden Euskadi guztiko kirol instalakuntzak erabili ahalko dituzte. Era berean, kiroldegiko hainbat zerbitzu beste herrietako erabiltzaileei irekiak egongo dira.

Agustin Valdiviak azaldu duan, "honen bitartez, herritarren jarduera fisikoaren eta ongiza-



Mugikorraren bitartez, erabili ahalko dute erabiltzaileek txartel birtuala. TXINTXARRI

tearen aldeko pauso berria ematen dugu, oztupoak kenduz eta herritarrek edozein udalerritan daudela ere, euren kirol ohiturekin jarraitzeko bide ematen diegu".

Nola eskuratu

Goizalde Pildain kirol zinegotziak jakitera eman ditu Lasarte-Oriako kirol abonatuak txartel birtuala eskuratzeko pausoak.

KirolTxartela Mugiment orrialdean aplikazioa deskargatu eta bertatik eskaera egin behar dute interesatuak; izapide hori hilaren 31etik aurrera egin ahalko da.

Agerraldian azaldu modura, aplikazioan beste hainbat daturen artean, Gipuzkoa eta Lasarte-Oria zehaztu behar dira. Pauso guztiak jarraitu ostean, helbide elektronikora baieztapena eta erabiltzaile kode bat iritsiko zaie eskatzaileei.

Horren bitartez, ekimenarekin bat egin duten Euskadiko beste herriek zehaztutako kirol instalakuntza eta zerbitzuak doan erabili ahalko dituzte herriko kirol abonatuak. Lasarte-Oriaren kasuan, igerilekura eta gimnasioa sartu ahalko dira beste herrietako erabiltzaileak.

Txartel birtuala edo horren gaineko informazio gehiago eskuratzeko kiroltxartela.eus orrialdera jo dezakete Lasarte-Oriako kirol abonatuak.



Atsobakar kirol gune irudia. TXINTXARRI

Atsobakar kirol gunearen irekierak ika-mika sortu du

Kirol instalazioak beharrezko baimen bat gabe ireki direla salatu du EH Bilduk. Udalak ere azalpenak eman ditu

Txintxarri

Atsobakar kirol gune baimenik gabe ireki eta, ondorioz, kirolarien segurtasuna bermatzeko aseguruik gabe egin dela salatu du EH Bilduk. Lasarte-Oriako Udalak zehaztepen batzuk eskaini ditu egoera azaltzeko.

Oposizioko taldea "herriko kirol talde eta kirolariek hain luzaroz itxaron duten momentua iritsi" delako pozarren agertu bada ere, PSE-EE eta EAJk osatutako Udal Gobernuak irekiera gauzatu aurretik egin beharrezko pausoak garai eman ez dituela eta instalazioak modu irregularrean ireki direla jakitera eman du.

Horren ondorioz, EH Bilduk azaltzen duenez, Udalaren aseguruak ez lituzke estaliko erabiltzaileen balizko istripuak eta, "beraz, ez dela kirolarien segurtasuna bermatzen".

Horrez gain, oraindik instalazio horien erabilera behar bezala arautu ez dela eta azpiegiturak oraindik erabat ekipatu gabe daudela ere argitaratu ematen du.

Horregatik guztiagatik, herriko EH Bilduk alkate eta hirigintzako arduradun den Agustin Valdiviari eskatzen dio herritarrei egoera gardentasunez azaldu, hau konpontzeko urratsak urgentziaz eman eta, bien bitartean, kirolarien segurtasuna bermatzeko baldintzak jar ditzala.

Udalaren azalpena

Salaketa horren harira, Lasarte-Oriako Udalak zenbait puntu

argitu nahi izan ditu eta herritarrei lasaitasun eta segurtasun mezua helarazi nahi die.

Udalak azaltzen duen moduan, Atsobakar behar bat asetzeko helburu zuen proiektua da eta horren ondorioz, herritarren interesak lehenetsiz, Udalaren zein alkatearen konpromisoa instalazioak ahalik eta azkarren irekitzearena izan da.

Oharrean nabarmentzen denez, administrazio izapide bakar baten faltan, proiektuak baldintza tekniko eta segurtasun baldintza guztiak betetzen ditu.

Egitasmoak atzerapen eta gorabehera ugari izan dituela onartu du udalak, eta gehienak berari ez dagozkion zereginetan egon direla azpimarratu du, hala nola, beste erakunde baimena edo elektrizitate hornidura. Horren harira, aurreko astean Usurbilgo alkatearekin bildu eta euren udal lizentziak ahalik eta lasterren eskuragarri izango direla jakitera eman du.

Era berean, udalerritari eta bertako biztanleei mesede egiten dieten proiektuak aberasteko elkarlanerako eta elkarrizketa eraikitzailea izateko deia egin die Udalak gainerako talde politikoei. Izan ere, proiektuaren aurreko faseetan EH Bilduren elkarlana faltan somatu dutela ere gaineratu du udalak oharrean. Azalpen horiek guztiak gardentasunarekin eta herritarren ongizatearen aldeko elkarlanarekin duen konpromisoa berresteko egin nahi izan ditu udalak.



LOKE JUDO

Brontzezko dominak

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) judo saileko gazteek junior mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuten hilaren 26an, igandearekin, Urnietan. LOKEko sei ordezkari izan ziren lehian maila ezberdinetan eta hiru kide podiumeko hirugarren mailara igo ziren: Ekain Luis (100 kg.), Maria Escribano (63 kg.) eta Tania Curiel (52 kg.). Iraia Diez, Unai Guisado eta Francis Mihailen judokak ere ederki lehiatu arren, ezin izan ziren dominetako lehietara iritsi. Otsailaren 8an, izango dute gazteek hurrengo hitzordua, Euskadiko txapelketa.

LOTMEK neguko bi irteera, Bachimaña eta Canfrancera

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarateak (LOTMEK) neguko bi irteera antolatu ditu hurrengo hilabeteetarako.

Otsailean, Tena bailarako Bachimañara egingo du elkarateak hilaren 22an eta 23an. Bertan neguko goi-mendian modu seguruan mugitzeko gaitasunak hobetu nahi dituzten mendizaleei zuzendutako jarduerak egingo dira.

Eta Ibarrako Bidetxur Klubaren laguntzarekin, eski irteera bat antolatu du martxoaren 8 eta 9rako Canfranc Haranera.

Irteeren informazio gehiago eta izena ematea LOTMEren webgunean egin ahal dute interesa dutenek.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

SUDOKUA

3							1	4
		4		5	1		8	
	8		3	4	7		2	5
			9	8	3			7
		3					2	1
		5	1	2				
	9	1	4		2			
4	2		5					7
	3						4	6

Sudoku10.net

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 31	ACHA-ORBEA
LARUNBATA, 1	LASA
IGANDEA, 2	LASA
ASTELEHENA, 3	KNIESE
ASTEARTEA, 4	KNIESE
ASTEAZKENA, 5	DE MIGUEL
OSTEGUNA, 6	DE MIGUEL

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
 KNIESE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Etxebeste Farmazia: Elkano kalea 9 behe, Hernani. 943-55 20 87

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Trastelekua saltzen dut, 20 m². sotoa da, Sasoetan. 4.000 euro. Harremanetarako zenbakia: 644 90 21 09.

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

EROSI

Garaje bat erosiko nuke herri erdigunean irekia edo itxia. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

ERRENTAN HARTU

Etxe bat alokatu nahiko nuke. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzerako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

ERRENTAN EMAN

Apartamentu bat alokatzen dut Landetan (Vieux-Boucau). Urte guztirako edo udan zein Aste Santuan: 688 66 79 82.

LANA

ESKARIA

Interna gisa lan ugari egiteko prest nago, besteak beste, adineko pertsonak zaintzeko. Harremanetarako, 613 95 31 26.

Batxilergoko Bigarren mailako ikaslea naiz eta edozein irakasgaietako klase partikularrak emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

2. Batxilergoko ikasle bati Matematikan laguntzeko eskola partikularrak emateko norbait behar da. Interesa dutenek deitu zenbaki honetara: 660 89 48 14 (Mari Karmen).

12 urteko neska bati zatikiak edo saio partikularrak emateko norbait behar dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

SALEROSKETA

Helduentzako trizikloa saltzen dut. Interesdunek 630 85 57 96 telefono zenbakira dei dezatela.

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostan etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Karreterako bizikleta, BMC SLR03 Beltza eta ondo zainduta. 607 49 16 63 (Aritz).

125 c.c-ko motorra, Piaggio Liberty beltza. 2013 urtean matrikulatuta eta 21.000 km. 616 43 47 65 (Joxe).

Opel Antara 150cv salgai. 2008. urtekoa. Gris koloreko larruzko eserleku berogarriekin. Funtzio anitzeko txartela. Nabigatzailea pantailan eta esku librekoa. Aleazio-hagunak. Hurbiltasun-sentsorea. Aire girota. Likidoen aldaketak eginda. Balazta-pastilla eginak. % 80ko estalkiak. Autoa oso ondo dabil eta oso zabala da. 7.000 euro. 672 41 67 61.

Kawasaki Z900 saltzen dut, 2018. urtekoa, 17.504km-rekin. Estrak ditu, SC ihes-hodia, balazta-heldulekuak, erorketen aurkako gomak, direkzio-eskudura eta martxoko estalkiak. Dauzkadan serieko gauza guztiak motorraren batera

entregatuko ditut. 6.000 euro. 606 59 90 64.

BMW X5 4.4.l saltzen dut. 2001. urtekoa. 4000 euro. 606599064

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitetz gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
 943-37 14 48
 688 68 35 10

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
 WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
 Tel.: 943-37 14 48 (104)
 WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
 Lege Gordailua: SS-513/93
 ISSN: 1134-0053
 Tirada: 8.300 ale

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
 Geltoki kalea 4 (behea)
 20160 Lasarte-Oria
 G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:

Xuban Urdalletea, Nikola Iraola, Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola eta Iñigo Ibarburu.

BABESLEA



LASARTE-ORIA
 UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 31

LASARTE-ORIA Erakusketa

Ibon Rosales argazkilariak *Ordu txikitako argi magikoak* erakusketa zabaldu du.

Jalgi Kafe Antzokia, 09:30etik 22:00etara.

DONOSTIA Erakusketa

Gotzon Huegun eskultore lasarteoriarrak gizakiaren eta naturaren arteko harremana esploratu eta *Sinkronia* izeneko erakusketa ondu du. Martxoaren 16ra arte izango da zabalik. *Cristina Enea fundazioaren egoitza (Mandasko Dukearen pasealekua, 66), 09:30etik 18:00etara.*

LASARTE-ORIA Tailerra

"Arrazakeriaren mekanismoak ulertzeko eta prebentziorako hausnarketa kritikoa sustatzeko"

tailer bat antolatu du Lasarte-Oriako Udalak. Adierazi du egitasmoa irekia dela eta parte hartu nahi dutenek ez dutela izenik eman behar. *Gaztelekua, 17:00etan.*

LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Azken Ostirala ekimena aurrera eramango du Sare Herritarrak: euskal preso, iheslari eta deportatuaren aldeko eskubideak aldarrikatuko ditu.

Elizate plazatik abiatuta, 20:00etan.

OTSAILAK 2

LASARTE-ORIA Agerraldia

Scouter Club Euskadi elkarteak 25. aldiz antolatuko du motorzaleen rallya aurten eta iragarri du "sorpresa ugari" prestatu dituela aldi berezi honetarako.

Arkupe taberna, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Haurrei zuzendutako film bat emango dute: *Klara eta hazi magikoen misterioa*. Sarrerek 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Helduei zuzendutako film bat emango dute: *Las vidas de Sing Sing*. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 19:30ean.

OTSAILAK 3

LASARTE-ORIA Ekimena

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko kideek abiarazi duten Herri Ekimen Legegilea babesteko sinadurak biltzen hasiko da herritar talde bat. Ohartarazi dute Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dagoen eta 18 urte edo gehiago dituen edozein pertsonak

sina dezakeela bertaratzen direnen eskura jarriko duten agiria. Sinatzaileei nortasun agiria eskatuko diete, "datuak zuzen idatzita egon behar dutelako". Bestalde, aurreratuko dute Xumela koruak ere parte hartuko duela ekitaldi horretan.

Okendo plaza, 18:30ean.

OTSAILAK 4

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Lasarte-Oriako zenbait ikastetxe eta eragiletako kideak santa eskean ibiliko dira udalerriko kaleetan barrena, Santa Ageda bezpera ospatu bitartean. Goizean ikasleen txanda izango da, eta arratsaldean, helduena. Erketz EDTko kideak, esate baterako, Sasoeta auzoko entsegu lokaletik abiatu eta taberna batzuetan ariko dira aurrera, baserrietara joan eta Buenabista sagardotegian afaltzeko gero. Zabaletako bizilagunek, berriz, auzo horretan ariko dira. Azkenik, Xumela koruak ere baieztatu du urteroko ohiturari eutsi eta udalerrian barrena oles egingo dutela.

Udalerrian barrena, egun osoan zehar.

OTSAILAK 17

LASARTE-ORIA Tailerra

Egurra lantzen ikasteko tailer bat egingo dute, astelehenero, azaroaren 24ra arte. Orduetgia, hauxe: 17:30etik 20:30era. Izena emateko epea otsailaren 12an bukatuko da eta parte hartu nahi dutenek 151 euro ordaindu beharko dituzte, aurrez aurre, kultur etxean, 10:00etatik 13:00etara.

Kultur etxean, 10:00etatik 13:00etara.

OTSAILAK 22

LASARTE-ORIA Bazkaria

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak jakinarazi du otsailaren 22an aurrera eramango duela aurtengo bertso bazkari literarioa, Xirimiri elkartearekin, 14:00etatik aurrera. Unai Elorriagak jarritako gaien bueltan abestuko dute Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi bertsoari. Txartelak salgai jarri dituzte Ilargi, Jalgi eta Tiburtzio Artizar tabernetan, 25 eurotan (langabeek 20 euro ordaindu beharko dituzte).

Xirimiri elkarte, 14:00etan.

Adam, Errenteria

24/11/18 Donostia Ospitalea

Gipuzkoa egunero sortzen da.

Pertsonen ongizate integral handieneko lurraldea izatea da gure asmoa.

GIPUZKOA
Ekin. Zaindu. Bizi.

SASOETA ZUMABURU IKASTETXEA

MATRIKULAZIO EPEA

Otsailaren 3tik 14ra

- 2 urtekoentzat egokitzapena: bi astekoa eta siesta zerbitzua.
- Euskara ahora proiektua: irratia, aldizkari digitala eta podcastak.
- Piktoidazketa proiektua: 3 hizkuntza batera integratuak.
- Innovamat proiektua: Matematika manipulatioa.
- Ingelesa: 4 urtetik aurrera.
- Sare hezkuntza: kompetentzia digitala lantzen.
- Liburutegi eta mediateka zerbitzuak.
- Goiz txoko zerbitzua.
- Jangela zerbitzua.
- Garraio zerbitzua.
- Eskola orduz kanpoko jarduerak.

Eskolako
telefonoa

943361226

• ATE IREKIAK •

Otsailak 1 (10:00-13:00) ZUMABURU

BILERA INFORMATIBOA

Otsailak 4 (17:00) ZUMABURU

+ info

sasoeta-zumaburu.eus

